

## ABENDUALDIKO I. IGANDEA (C)

### Otoitza

Jaungoiko ahalguztiduna,  
emaiezu zeure fededunei  
beren egintza onekin Kristoren bidera ateratzeko gogoia,  
egunen batez, Haren eskuin aldean jarririk,  
zeruko erreinua irits dezaten.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jr 33, 14-16

*Legezko muskil bat sortaraziko diot Dabidi.*

Jeremias Profetaren liburutik

«Begira, badatoz egunak –dio Jaunak–, eta egun horietan beteko dut, Nik Israel etxeari eta Juda etxeari emandako hitza.

Egun haietan eta ordu hartan,  
legezko muskil bat sortaraziko diot Dabidi,  
esta eskubidea eta zuzenbidea ezarriko ditu lurrean.

Egun haietan Juda salbatuko da,  
eta Jerusalemene lasai biziko dira.

Hona, herriari emango zaion izena:

"Jauna-gure-zuzentasun"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 24, 4-5. 8-9. 10 eta 14

**R/. Jauna, Zugana jasotzen dut bihotza.**

Erakuts niri, Jauna, zure bideak,  
adierazi zure bideskak.

Eraman nazazu zure egia bidetik, eta argitu,  
Zu baitzara nire Jainko salbatzaile,  
Zu zaitut egun osoan nire itxaripide. R/.

On eta zuzen da Jauna,  
horregatik erakusten die hobendunei bidea.  
Apalak zuzenbidez daramatza,

erakusten die bere bidea apalei. R/.

Jaunaren bideska guztiak grazia eta leialtasuna,  
Haren ituna eta aginduak gordetzen dituztenentzat.  
Etxeko ditu Jaunak beldur diotenak,  
erakusten die bere ituna. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ts 3, 12-4, 2

*Sendo ditzala Jaunak zuen bihotzak,  
Jesus etortzen denerako.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Jaunak gehitu eta ugari dezala, zuek elkarrentzat eta denontzat duzuen maitasuna, ugaria den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela sendo ditzala Berak zuen bihotzak; Jesus gure Jauna bere santuekin etortzen denean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitezten, gure Aita Jaungoikoaren aurrean.

Gainerakoan, senideok, eskabide hau egiten dizuet Jesusengan: ikasi zenuten niregandik, nola bizi Jaungoikoari atsegina emateko. Egin, beraz, hala eta jarrai horretan aurrera. Badakizue, guk Jesus Jaunaren izenean eman genizkizuen erakutsiak.

EBANJELIOA: Lk 21, 25-28. 34-36

**Aleluia:** Sal 84, 8

R/. Aleluia.

V/. Jauna, zure onginahia erakutsiezaguzu,  
zure salbamena emaguzu. R/.

*Hurbiltzen ari da zeuen askatasuna.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Zantzuak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan; estu ibiliko dira lurtean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta uhin indarrez zoratuta. Gizakiak arnasarik gabe geldituko dira, munduari gainera datorkionaren beldurrez, zeruko indarrak ere dardaratuko baitira. Orduan ikusiko duzue Gizonaren Semea indartsu eta aintza haunditan etortzen hodei batean. Guzti hori gertatzen hasten denean, zuti zaitezte eta jaso zeuen buruak: hurbiltzen ari da zeuen askatasuna.

Egon erne; ez bitez moteldu zuen bihotzak, hordikeriaz, mozkorkeriaz, eta bizitza honetako kezketan; ez bekizue egun hura ustekabean gainera eror; sarea bezala etc

diren guztien gainera. Egon, bada, beti erne eta egin otoitz, etorri behar duten guzti horiei ihes egin ahal diezaiezuen, eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

### **Oparigaien gainekoa**

Onar, Jauna,  
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;  
iguzu, ogi-ardo hauekin orain eta hemen egiten duguna,  
betiereko salbamenerako izan dakigula.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko I.a

### **Jaunartze ondorengoa**

On egin diezagula, Jauna,  
orain ospatu dugun sakramentuak;  
beronen bidez irakasten diguzu,  
mundu honetako gauza iheskorren artean gabiltzanoi,  
iraunkorrei jarraitzen eta zerukoak maitatzen.  
Jesu Kristo.